

opusdei.org

# Aita Santuak Guadalupe txalotzen du

Aita Santuak txaloaldi bat  
eskatzen du Guadalupe  
dohatsuarentzat

2019 Eka 3

Frantzisko Aita Santua, joan den  
igandean, Guadalupe Ortiz de  
Landazuri kimikaria aldaretara  
goratzeak sortutako pozarekin bat  
egin zuen. Eta Vatikanoko San Pedro  
plazan, *Regina Coeli* errezatzean,  
esan zuen emakume honek, “Opus

Deiko kide laikoa, pozez zerbitzatu zituela bere senideak, ebanjelioa irakatsiz eta iragarritz.

“Haren testigantza eredu bihurtzen da egintza sozialetan eta ikerketa zientifikoan konprometituak dauden emakume kristaudentzat. Egin diezaiogun txalo dohatsu berriari!” esanez amaitu zuen Aita Santuak.

Igandean, Madrileko Vista Alegre Jauregian, 12 mila pertsona zeuden beatifikazioagatik esker emateko ospatu zen mezan. Mons. Fernando Ocariz Opus Deiko Prelatua zen buru, eta denei animatu zien bete-betean irekiak egotera “Jaunak bakoitzaren bidez egin nahi dituen gauza handiei”.

Egin zuen homilian, Guadalupe Ortiz de Landazurik 1954an San Josemariari Mexikotik idatzitako gutun bat aipatu zuen, non dohatsu berriak Opus Deiko Fundatzaileari

bere bihotza zabaltzen zion eta santu izateko zuen irrika agertzen.

“Bere inguruko jendearentzat, pertsona arrunta zen: familiaz arduratzen zen, hemendik hara zebilen, lan bat bukatu eta bestea hasi, pixkanaka bere akatsak zuzentzen saiatuz” esan zuen.

“Santu bakoitza Jainkoaren lan bikain bat da: mundu honetan presente egiteko Jainkoaren modu bat; “Elizaren aurpegirik ederrena”. Guadaluperen beatifikazioak –Opus Deiko lehenengo kide laikoa, santutasun eredu bezala proposatu duena Elizak– kristau guztiei gogoratzen digu Jainkoak santu izatera deitzen gaituela, san Josemariak 1928tik aurrera predikatu, eta Kontzilio Vatikanoko II.ak jaso zuen bezala.

Guadalupe munduan zehar ibili zen misio hori aurrera eramateko, Madriletik Bilbora, Mexikora... Eta

lehen apostoluek bezala, aurre egin  
behar izan zion zailtasun eta lan  
askori, bihotzeko gaixotasuna barne.  
Horrek indarra gutxitzen zion,  
heriotza ekartzeraino 1975ean.

“Guk ere izan, izango ditugu  
oztopoak gure bidean: nekeak,  
oinazeak, ulertu ezinak... Orduan  
gogoratu behar dugu santuen  
jarrera. Jesusekin ditugun  
harremanen bidez, adore eman,  
sendotu eta on egiteko gure  
inguruan”.

---

pdf | document generated  
automatically from [https://opusdei.org/  
eu-es/article/aita-santuak-guadalupe-  
txalotzen-du/](https://opusdei.org/eu-es/article/aita-santuak-guadalupe-txalotzen-du/) (2026 Mar 10)